

altza

Pelegrin Gonzalez Altzako kazetaria

Pelegrin Gonzalez Altza inguruan «free-lance» moduan lanean dabilen korrespontsala dugu. 1952. urtean jaio zen, ogibidez industri maisua eta 19 urte zituela Errenteriako fabrika batean hasi zen lanean.

Kazetaritza lanak duela 7 urte hasi zituen. Bere benetako profesioa urrun uzten duen errealitate berri hau kasualitatez iritsi zen Pelegrinen eskuetara. Aspaldian hasi zen lagunarteko kirol komentarioak egiten, berak dioenez, «hitzegitea baita niri gehien gustatzen zaidan gauza». Honela, erdi txantxetan lagunek Roteta Kirol Elkarteari buruzko futbol komentarioak Diario Vasco egunkarian idazteko eskatu zioten. Hori izan zen kazetaritza munduan sartu zuena.



NOLA EGITEN DU LAN AUZO KORRESPONSAL BATEK?

Egia esan oso zaila da, korrespontsalak guztiaz jakin behar du, guztia ezagutu behar du eta askotan ez daki idatzi behar duen gaiaz. Dena den, beharrezkoa izaten da jende asko ezagutzea eta informazio sare bat eraikitzea.

ZURE USTEZ, AUZOKO EKINTZAK ETA KEZKAK BEHAR BEZALA ISLADATZEN AL DIRA?

Ez, ez dira ekintza guztien komentarioak egiten espazioak asko mugatzen gaitu eta eritziak ematean ere izaten dira mugak.

ZURE USTEZ AUZO ELKARTEEK ETA AUZOTARREK PARTE HARTZE HANDIAGOA IZAN

BEHAR LUKETE KORRESPONSAL EN LANETAN?

Ez naiteke Altzako erantzunaz kexatu, dena den zehaztu beharko nuke zenbait elkartek ez duela oso begi onez ikusten nire lan egiteko modua eta ez duela gehiegi laguntzen.

NOLAKO HARREMANA SORTZEN DA KORRESPONSAL ETA AUZOKIDEEN ARTEAN?

Giza erlazioa sortzen da bien artean, lagunarteko harremana. Azken finean jendeak bere arazokontatzen dizkizu eta zuk irtenbidea bilatu nahian publiko egiten duzu kezka hori.

PELEGRINEK BA AL DU AUTOKRITIKARIK?

Bai, kultoa ez izatea eta kazetaritzari eskaini-

tzeko nire egunek 24 ordu baino gehiago ez izatea.

HASI BEHAR IZANEZ GERO ZEIN PROFESIO AUKERATUKO ZENUKE, KAZETARITZA ALA ZURE BENETAKO PROFESIOA?

Egia esan kazetaritza hartuko nuke, pertsonalki asko betetzen nauen lana baita.

ANEKDOTARIK BA AL DUZU?

Anekdotak baino gehiago, lanean ikusitako beste zenbait gauza ditut gogoan. Behin Juan San Martin Arartekoa elkarrizketatu behar izan nuen eta hasi orduko bazirudien bera ni elkarrizketatzen ari zela.

Leproso etxe batean lan egiten zuen Altzako neska zoragarri baten hi-

tzek erakutsi zidaten zer den besteenganako laguntza ematea, hori ere oso gogoan dut.

ZER DIOZU ALTZAKO EKINTZEI BURUZ ETA AUZOARI BURUZ?

Begira, ekintzei dago-kienez nire ustez, jasaten ari garen egoera ekonomiko-kultural eta politikarako Altzan antolatzen diren ekintzak nahikoak dira. Eta Altza auzoari dago-kionez, Altzak auzo bezala ez du zentzurik, Altzak herria behar luke.

SUGERENTZIARIK?

Bai, Altzatar biztanleak alzatarragoak senti daitezten.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)